Teodoro Hernandorena kalea, 6 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 10 12 - Fax: 943 69 32 00 - e-posta: zizurkil@udal.gipuzkoa.net
Elbarrena Auzoan: Aurrera Plaza, 3 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 30 66 - Fax: 943 69 36 74 - e-posta: bulegoa@zizurkil.com
www.zizurkil.com

# II ERANSKINA – ANEXO II

Onkologikoa, kutxaren Institutu Onkologikoa da. Minbiziaren prebentzio, diagnostiko eta tratamendurako Zentro monografikoa da, teknologia aldetik punta-puntakoa. Hirurehun profesional baino gehiagok dihardute lanean bertan.

Onkologikoa aspalditik dago integratua EUSKAL OSASUN SISTEMAN, izan ere, duela 25 urte INSALUDen transferentzia jaso genuenetik eta gaur arte, Eusko Jaurlaritzako Osasun-Sailarekin sinatutako HITZARMENEN bitartez, Gipuzkoako zein Euskal Autonomia Erkidegoko beste lurraldeetako hainbat pazienteren onkologia esparruko atentzioa bere gain hartu izan du eta hartzen jarraitzen du. Era berean, Aseguru Pribatuetako pazienteak eta paziente partikularrak ere tratatzen dira ONKOLOGIKOAN.

Esandako moduan, KUTXA da ONKOLOGIKOAREN jabea, bere Obra Sozialaren ikur nagusienetakoa da. Ondorioz, ez dadila inor nahastu, Onkologikoa, Euskal Osasun Sisteman egonda ere ospitale pribatua izan da betidanik, sortua izan zenetik.

2010. urtean KUTXAk Ospitale Onkologikoa izandakoa FUNDAZIO bilakatu zuen, irabazi asmorik gabeko Fundazioa da eta interes publikoko jardueretara mugatzen da bere jarduna.

Fundazio bilakatzeaz batera, nortasun juridiko propioa eman zitzaion eta

bere gidaritza Patronatu baten esku utzi da. Patronatu horren buru Kutxako presidentea bera dugu eta otsailaren 13tik aurrera,Osasun Sailburuordea ere Patronatu horretako partaide da.

Bat gatoz erabat ONKOLOGIKOAk Euskal Osasun Sisteman duen garrantziarekin. Gipuzkoan zein erkidego osoan prestigio handiko zentroa da eta funtzio sozial ukaezina betetzen du.

Eta guk ere horrela izaten jarraitu dezan nahi dugu.

Horregatik, Osasun Sailburuak gai honen inguruan hartutako konpromisoa beteko du. Argi esan duen bezala, Eusko Jaurlaritzak erantzukizunez jokatuko du eta ez duONKOLOGIKOA albo batera utziko.

ZIZURKILGO UDALA

Oso alderantziziz, 2013ko abenduaren 31ean amaitzen den HITZARMENA berritzeko asmo irmoa azaldu du jada, hain zuzen ere, ONKOLOGIKOAri egonkortasuna emateko helburuarekin.

Jaurlaritzak urratsak ematen jarraituko du ONKOLOGIKOAren eta Donostiako Unibertsitate Ospitalearen "integrazio funtzionalerako" bidean.

Uste baitugu beharrezkoa dela onkologiaren atentzioa osotasunean aztertzea Gipuzkoa zein Erkidego mailan, ondorioz aurrerapausoak ematen joateko bi erakundeen arteko integrazio funtzionala erdiesteko bidean.

Hori horrela:

1.- Onkologikoaren zeregina aitortzen dugu eta bertan ari diren langileen lana eta Kutxak bere Gizartekintzaren eskutik eginiko apostua errekonozitzen dugu.

2.- Azken hogei urtetan Jaurlaritzak Onkologikoarekin mantendu duen kontzertua berritzeko beharra baieztatzen dugu, Onkologikoa Euskal Osasun Sistemaren parte izan dadin etorkizunean ere, gipuzkoarroi zein gainontzeko erkidegoko herritarroi, Sistema Publikoaren bitartez, atentzio onkologikoa eskainiz.

3.- Zenbait gaixotasun onkologikotan Onkologikoa da erreferente, beste batzuetan Donostiako Unibertsitate Ospitalea. Bien arteko integrazio funtzionala sakontzea beharrezkoa ikusten dugu, gutxiago lehiatu dezaten bi erakundeek beraien artean eta gehiago sakondu bien arteko elkarlanean.

Teodoro Hernandorena kalea, 6 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 10 12 - Fax: 943 69 32 00 - e-posta: zizurkil@udal.gipuzkoa.net
Elbarrena Auzoan: Aurrera Plaza, 3 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 30 66 - Fax: 943 69 36 74 - e-posta: bulegoa@zizurkil.com
www.zizurkil.com

ZIZURKILGO UDALA

III ERANSKINA

ZIZURKILGO UDALA
2013 EKA. 14
SARREREN ERREGISTROA
Zenbakia ......680......

## Herritarren parte hartze zuzena arautzeko udal ordenantza baten beharra

Demokrazia ulertzeko bi era daude. Horietako bat, lau urtez behin egiten diren hauteskundeetan politikoak aukeratzera mugatzen da. Bestea, aldiz, herritarren parte hartze zuzenean oinarritzen da. Esan daiteke, orain arte, orokorrean, gure herrian zein munduaren gehiengoan demokraziaren lehenengo eredua gailendu dela, alegia, eredu ordezkatzailea.

Gauzak honela, uste dugu jauzi kualitatibo bat eman beharra dagoela demokrazia parte hartzailean. Nola? Herritarren parte hartze zuzenerako prozesuak arautuz, beste batzuen artean, horren adierazle nagusiak diren herri kontsulta edo erreferendumak erregulatuz.

Bilduren apustua tinkoa da: herrian pisuzkoak diren erabakietan herritarrek parte hartze zuzena izatea. Gure irudiko, horixe da sor daitezkeen arazoak argitzeko modurik justuena.

Herritarren parte hartze zuzena arautzeak ahalbidetuko du, hain justu, hondakinen bilketaren harira azken hilabeteetan Gipuzkoako herri askotan bizitzen ari den egoera berriro ez errepikatzea. Zenbait alderdi politiko "inposaketaz" hitz egiten ari dira. Hain zuzen ere, hori dioten berberak dira 35 urtean era hegemonikoan instituzioetan agintzen aritu diren bitartean kontsulta bakar bat ere egin ez dutenak. Areago, hauteskunde ofizialen benetazko emaitzak deslegitimatzera ere iritsi izan dira. Berdin urte guzti horietan herritarren ekimenez egin diren zenbait herri kontsulten kasuan ere; besteak beste, AHT edota Boroako zentralaren ingurukoak.

Guzti honengatik, **BILDUk, udalean ordezkaritza duten alderdi politikoei dei egin nahi die mozio hau onar dezaten, herritarren parte hartze zuzena udal ordenantza batean arautzeko helburuarekin. Era berean, ordenantza hori herritarren parte hartze aktiboarekin garatu beharko litzateke.**

Teodoro Hernandorena kalea, 6 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 10 12 - Fax: 943 69 32 00 - e-posta: zizurkil@udal.gipuzkoa.net
Elbarrena Auzoan: Aurrera Plaza, 3 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 30 66 - Fax: 943 69 36 74 - e-posta: bulegoa@zizurkil.com
www.zizurkil.com

# ANEXO III

## Necesidad de regular en una ordenanza municipal la participación directa de los/as vecinos/as

Existen dos formas de entender la democracia. Una de ellas la limita exclusivamente a la elección de representantes políticos en las elecciones. Y la otra apuesta, por una participación directa de l@s vecin@s en la toma de decisiones. Se puede decir que hasta la fecha, y en líneas generales, en nuestro municipio (y casi en la totalidad del planeta) ha predominado la primera de las formas de entender la democracia, es decir, la representativa.

No obstante, entendemos que hay que dar un salto cualitativo en la democracia participativa, regulando los procesos de participación directa de los ciudadanos, en sus máximas expresiones como por ejemplo en la realización de consultas y refrendos.

Bildu apuesta firmemente por la participación directa de los ciudadanos y las ciudadanas en aquellas decisiones relevantes para el municipio, porque entiende que es la mejor manera y la más justa para dilucidar los diferentes problemas ante los que nos podemos encontrar l@s vecin@s, aceptando y consolidando el juego democrático de las mayorías.

La finalidad de regular la participación directa de los ciudadanos y las ciudadanas es precisamente que no se den situaciones como las que se están viviendo en los últimos meses en las diferentes localidades de Gipuzkoa, con el tema de la recogida de los residuos. Algunos partidos políticos últimamente estén hablando de "imposición", son los mismos que jamás han realizado una sola consulta sobre absolutamente nada en estos 35 años de democracia representativa, y son los que han dominado las diferentes instituciones casi de forma hegemónica. Y en ocasiones han deslegitimado los resultados de elecciones oficiales y de las pocas consultas populares realizadas, como por ejemplo, consultas sobre el TAV, la central Boroa, y etc.

Por todo ello, **BILDU hace un llamamiento a todos los grupos políticos representados en el gobierno municipal a la adhesión a esta moción con el fin de definir los procesos de participación directa en una ordenanza municipal. Para el que se contará con la participación activa de los/as ciudadanos/as en la definición de dicha ordenanza.**

Teodoro Hernandorena kalea, 6 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 10 12 - Fax: 943 69 32 00 - e-posta: zizurkil@udal.gipuzkoa.net
Elbarrena Auzoan: Aurrera Plaza, 3 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 30 66 - Fax: 943 69 36 74 - e-posta: bulegoa@zizurkil.com
www.zizurkil.com

ZIZURKILGO UDALA

# IV ERANSKINA – ANEXO IV

ZIZURKILGO UDALA
2013 EKA. 14
SARREREN ERREGISTROA
Zenbakia ......681......

LAB sindikatua, zuengana jotzen du, ordezkari politiko zareten heinean, zaudeten instituzioetan beherago jasotzen dugun mozioa izapidetu eta zuen babesa ematea eskatuz.

Gure iritziz, 3. adineko egoitza eta eguneko zentroetako langileon eta erabiltzaileen eskubideak urratzen dituen gatazka hau konpontze aldera, ezinbestekoa da zuek ordezkatzen dituzuen alderdi politikoen inplikazioa ematea.

Zuekin beharrezkoak diren bilera eta hartu emanak emateko prest gaudela jakinarazi nahi dizuegu.

- Yoana Mendez: 682177795
  y.mendez@labsindikatua.org
- Ane Sarriegi: 676377528
  a.sarriegi@labsindikatua.org

## MOZIOA

Autonomiarik ez duten adinekoen pertsonen zaintzarako Egoitza eta Eguneko Zentroetako langileen lan hitzarmenaren negoziazioa blokeatuta dago.

Zerbitzua duen izaera publikoa eta beraz, instituzioek honen gainean duten erantzukizun zuzenagatik Gipuzkoako Foru Aldundiak proposamen bat egin du egoera hau desblokeatzeko.

Proposamen honek sektore honetako langileen aldarrikapen historikoak diren lan baldintzen hobekuntzarako neurriak jasotzen ditu bere bajtan, baita inposatutako Lan Erreforma Laboralaren ondorio negatiboak eragozteko eta zerbitzuaren kalitatea hobetuko luketen neurriak ere; eta honekin batera, patronalei proposamen hau aurrera eraman ahal izateko beharrezko diru hornidura bermatzen die.

Gauzak horrela, Udal honetako Osoko Batzak Gipuzkoako Foru Aldundiak egin bezala zerbitzu publiko honen gaineko ardura bere egiten du, eta honenbestez jarraian azaltzen diren puntuak onartu egiten ditu:

- ADEGI eta LARESi dei egiten diegu inposizioaren bidea albo batera utzi, negoziazioa desblokeatu eta sindikatuekin herrialdeko lan hitzarmenaren gaineko akordio batera iristeko eskatzen diegu.
- ADEGIri Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontra aurkeztutako demanda kentzera dei egiten diogu.
- Jendarteari kalitateko zerbitzu publiko baten alde, eta sektore honetako herrialdeko hitzarmenaren alde dagoeneko antolatuak dauden eta datozen egun eta asteetan antolatuko diren mobilizazioetan parte hartzera dei egiten diogu

ZIZURKILGO UDALA

# V ERANSKINA

**Zizurkilgo Udaletxearen Osoko Bilkurara**

ZIZURKILGO UDALA
2013 MAI. 27
SARREREN ERREGISTROA
Zenbakia ..........552..................

*Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformak,* idatzi honen beheko partean agertzen diren Elkarteez osatutakoa, egungo legediari jarraituaz Zizurkilgo Udaletxearen Osoko Bilkurari proposatzen dio ondorengo Mozioaren onarpena.

Zizurkilen, 2013.eko Maiatzaren 25a.

## ARRAZOIEN AZALPENA

1936.eko Uztailean Francok burututako altxamendu militar-faxistak Errepublikaren bidezko Gobernua eta Gobernu Autonomiko guztiak ezabatu zituen, industri, nekazal eta finantza oligarkiaren laguntzarekin, Elizaren agintari eta partaideek tarteko, eta erregimen politiko totalitario bat ezarri zuen askatasunaren, justizia sozialaren eta Estatuko Nazioen eta Herrien eskubideen aldeko pertsona ororen suntsitze fisikoa eraginaz.

Diktadura hura, ideologikoki "nacional-catolicismo" delakoaren zutabeetan finkatua, armadak, finantza eta industria oligarkiak, lur-jabeen klaseak eta Elizak hurrengoko berrogei urteetan mantendu zuten errepresio bortitza eta jeneralizatuaren bitartez edozein oposizio saihestuaz, torturak, "paseoak", heriotza-zigorrak, eta gainontzeko kondenak jarriaz erregimenaren aldeko epaileen bitartez, atxilotuak inongo defentsa aukerarik izan gabe.

Francoren heriotzaren ondoren, herriaren borrokek eta presio internazionalak frankistak behartu zituzten nolabaiteko aldaketa batzuk egitera, baina botere politikoa, judiziala, ekonomikoa, militarra eta errepresiboa mantenduaz eta frankismoaren zutabe nagusienak bermatuaz: Estatuaren batasuna, Kapitalismoaren jabetza eta lehentasuna edozein interes sozialetik gain, eta Elizaren estatus pribilegiatua.

Baina "trantsizio" hartatik hogeita hamabost urte geroago argentinar epaile batek frankismoaren aurkako kereila bat onartu du genozidio eta gizateriaren aurkako delituengatik, preskriba-ezinak eta inongo "azken puntuko legeak" amnistiatzerik ezin dituenak. Nahiz eta erakunde internazionaletik izan, kereila honek frankismoaren zutabeak zartatzen hasia du, hainbat pertsona eta erakunde sozial anitzek urteetan

zehar ahalegintzen ari garen bezala. Beraz, Egiaren, Justiziaren eta Erreparazioaren aldeko une garrantzitsu baten aurrean gaude, milaka eta milaka errepresaliatuen duintasuna lortzeko ahalmen berezia bilakatuaz.

Esandako guzti honegatik, *Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformak,* Altafaylla Kultur Taldea, CNT Euskal Herria, Durango 1936 Kultur Elkartea, Euskal Memoria Fundazioa, Eusko Lurra Fundazioa, Egiari Zor Fundazioa, Garraxika Taldea, Gernika Batzordea, Goldatu Elkartea, Intxorta 1937 Kultur Elkartea, Lau Haizetara Gogoan Elkartea, Martxoak 3 Elkartea, Oroituz, Sanfermines 78: GOGOAN! eta Sare Antifaxista Elkarteek osatzen dutena, ondoko proposamena luzatzen dizue:

## *MOZIOA*

***1.- Zizurkilgo Udaletxeak 1931.ean bide onez burututako Errepublika eta Gobernu Espainol, Katalan, Galego eta Euskaldunaren aurka 1936.eko Uztailean Francok antolatutako altxamendu militar-faxista salatzen du.***

***2.- Zizurkilgo Udaletxeak gerora ezarritako diktadura erregimena salatzen du, berrogei urteetan zehar eragindako triskantza odoltsuegatik justizia soziala aldarrikatzen zutenen aurka eta baita Katalunia, Galizia eta Euskal Herriaren eskubide nazionalak aldarrikatzen zutenen aurka.***

***3.- Zizurkilgo Udaletxeak kolpe militar haren alde eta gerora bere gobernuen alde egin zuten industria, nekazal eta finantza oligarkiak eta Elizaren agintari eta partaideak salatzen ditu.***

***4.- Zizurkilgo Udaletxeak altxamendu militarragatik, erregimen frankistagatik eta Estatu terrorismoagatik errepresaliatuak izan zirenen eskubide eta eskaeren alde egiten du eta administrazio publikoei, hau da, instituzio politiko eta juridikoei, eskatzen die pertsona kaltetu horien eskubideak bermatzeko ere, erregimen haren EGIA plazaratzen, bere oinordekoak egiten ari diren historiaren errelato faltsua salatuaz; JUZTIZIA aldarrikatzen, egungo inpunitatea saihestuaz eta frankisten erantzukizuna exijituaz; milaka eta milaka biktimentzat ERREPARAZIO duin eta diskriminazio gabea eskatzen; eta, azkenik, gizarteak behar dituen aldaketa sozio-ekonomikoak, juridikoak eta instituzionalak eragiten, ERREPIKA-EZINAREN BERMEA ezartzeko.***

ZIZURKILGO UDALA

*5.- Ildo honetan, Zizurkilgo Udaletxeak bere laguntza eta atxikimendua ematen dio Argentinako Errepublikan, Buenos Aireseko 1 Epaitegian, 4591/10 Kereilari, zein Maria Servini de Cubria Epaileak daraman genozidioaren eta gizateriaren aurkako frankismoaren krimenegatik.*

*6.- Zizurkilgo Udaletxeak hiritar orori eskatzen dio Kereila honen alde egin dezan, bai kereilatzaile gisa errepresiorik sufritu duenak, berak edo bere familiakoren batek; edo baita diktaduraren aurka bere salaketa eginaz eta atxikimendu pertsonala sinatuaz.*

*Zizurkilgo Udaletxeko Osoko Bilkurak deklaratzen duena 2013.eko............aren ......a.*

Instituzio horretarako hautatuta dauden partaide guztiak animatzen ditugu Frankismoaren Aurkako Kanpaina eta Kereila honekin bat egin dezaten goiko Mozioa onartuaz.

<u>Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataforma</u>

<u>*Plataforma Vasca para la Querella contra los Crímenes del Franquismo*</u>

- **-Altafaylla Kultur Taldea.** (www.altaffaylla.com)
- **-CNT Euskal Herria.** (bilbao@cnt.es)
- **-Durango 1936 Kultur Elkartea.**
- **-Euskal Memoria Fundazioa.** (www.euskalmemoria.com)
- **-Eusko Lurra Fundazioa.**
- **-Egiari Zor Fundazioa.** (www.egiarizor.org)
- **-Garraxika Taldea.** (www.turrune.wordpress.com)
- **-Gernika Batzordea.** (www.gernika2012.net)
- **-Goldatu Elkartea.** (www.goldatu.org) <u>Oficina Virtual para la Querella</u>
- **-Intxorta 1937 Kultur Elkartea.** (www.intxorta.org)
- **-Lau Haizetara Gogoan Elkartea.** (www.lau-haizetara-gogoan.blogspot.com)
- **-Martxoak 3 Elkartea.** (www.martxoak3.org)
- **-Oroituz Andoain 1936.**
- **-Sanfermines 78:GOGOAN!** (sf78gogoan@gmail.com)
- **-Sare Antifaxista.** (sare.antifaxista@gmail.com)

ZIZURKILGO UDALA

**ANEXO V**

**Al Pleno del Ayuntamiento de Zizurkil**

ZIZURKILGO UDALA
2013 MAI. 27
SARREREN ERREGISTROA
Zenbakia ...552...

La *PLATAFORMA VASCA PARA LA QUERELLA CONTRA LOS CRÍMENES DEL FRANQUISMO* compuesta por las organizaciones que se especifican al final de este escrito, al amparo de la legislación vigente, solicita la tramitación de la presente moción ante el Pleno del Ayuntamiento de Zizurkil.

En Zizurkil, a 25 de Mayo de 2013

## EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

En julio de 1936 la sublevación militar encabezada por Franco y apoyada por la oligarquía agraria, industrial y financiera, así como por la cúpula y gran parte del clero, derrocó el Gobierno legítimo de la República y los Gobiernos autonómicos e instauró un régimen totalitario basado en la persecución y aniquilación física de los defensores de la libertad, de la justicia social y de los derechos de los pueblos y las naciones del conjunto del Estado.

Dicho régimen dictatorial, sustentado ideológicamente en el fascismo denominado nacional-catolicismo, fue mantenido por el ejército, la oligarquía financiera e industrial, la clase terrateniente y la mayor parte de los dirigentes de la Iglesia católica. Los siguientes cuarenta años fueron de represión generalizada de cualquier oposición, de tortura sistemática, de asesinatos en cunetas y "paseos", de condenas a muerte o a largas penas de prisión sentenciadas por jueces adictos al régimen y dispuestos a aplicar sus leyes fascistas en medio de una absoluta indefensión por parte de los detenidos.

Tras la muerte de Franco, ante el empuje de la lucha popular y la presión internacional, el régimen se avino a un cambio formal pero manteniendo las estructuras de poder político, judicial, económico, militar y represivo; asegurando así los pilares fundamentales del franquismo: la unidad del Estado, la preeminencia del Capital por encima de cualquier interés social y el status privilegiado de la Iglesia Católica.

Pero treinta y cinco años después de aquella "transición", una jueza argentina lleva adelante una causa contra el franquismo y sus protagonistas vivos, por delitos de genocidio y lesa humanidad, delitos que ni prescriben ni pueden ser amnistiados por ningún tipo de "ley de punto final". Aun siendo desde instancias internacionales, esta querella empieza a resquebrajar el muro de impunidad del franquismo, contra el que tantas personas y organizaciones sociales de diversa índole venimos denunciando. Resulta, por lo tanto, un hecho de especial relevancia en la lucha por la Justicia, por la Verdad y por la Reparación de los daños causados a las cientos de miles de víctimas del franquismo.

Por todo lo expuesto, la PLATAFORMA VASCA PARA LA QUERELLA CONTRA LOS CRÍMENES DEL FRANQUISMO, conformada por Altafaylla Kultur Taldea, CNT Euskal Herria, Durango 1936 Kultur Elkartea, Euskal Memoria Fundazioa, Eusko Lurra Fundazioa, Egiari Zor Fundazioa, Garraxika Taldea, Gernika Batzordea, Goldatu Elkartea, Intxorta 1937 Kultur Elkartea, Lau Haizetara Gogoan Elkartea, Martxoak 3 Elkartea, Oroituz, Sanfermines 78: GOGAN!, y Sare Antifaxista, presenta para su aprobación la siguiente propuesta de

***MOCIÓN***

1. ***El Ayuntamiento de Zizurkil denuncia la sublevación militar-fascista dirigida por el General Francisco Franco Bahamonde en julio de 1936, contra el régimen republicano legítimamente constituido en el año 1931 y los Gobiernos Español, Vasco y Catalán legalmente constituidos.***
2. ***El Ayuntamiento de Zizurkil denuncia el régimen dictatorial posterior que durante cuarenta años reprimió a sangre y fuego todo vestigio de disidencia y lucha por la libertad, la justicia social y los derechos individuales y colectivos.***
3. ***El Ayuntamiento de Zizurkil denuncia el papel jugado por las oligarquías agraria, industrial y financiera y la jerarquía de la Iglesia Católica, con su apoyo al golpismo, primero, y al régimen fascista instaurado después.***
4. ***El Ayuntamiento de Zizurkil apoya los derechos y las reivindicaciones de las personas represaliadas por el franquismo y exige a las administraciones públicas del Estado, es decir, a las instituciones políticas y judiciales, que adopten las medidas necesarias para garantizar a los represaliados y represaliadas por la rebelión militar de julio 1936, el régimen franquista y el terrorismo de Estado, el ejercicio de su derecho a la VERDAD sobre aquel régimen, para contrarrestar los intentos de rescribir la historia que se vienen realizando por sus herederos; el derecho a la JUSTICIA efectiva mediante la que se pueda superar el actual estado de impunidad de los responsables de los crímenes de lesa humanidad cometidos; y el derecho a una REPARACIÓN digna y no discriminatoria por las vulneraciones causadas a los centenares de miles de víctimas del franquismo; y, por último, el derecho del conjunto de la sociedad a que se implemente medidas de cambios sociopolíticos, jurídicos e institucionales como GARANTÍA DE NO REPETICIÓN.***

Teodoro Hernandorena kalea, 6 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 10 12 - Fax: 943 69 32 00 - e-posta: zizurkil@udal.gipuzkoa.net
Elbarrena Auzoan: Aurrera Plaza, 3 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 30 66 - Fax: 943 69 36 74 - e-posta: bulegoa@zizurkil.com
www.zizurkil.com

5. *En esta línea de compromiso, el Ayuntamiento de Zizurkil manifiesta su apoyo y adhesión a la Querella 4591-10, del Juzgado Nº 1 de Buenos Aires, República Argentina, que lleva adelante la magistrada María Servini de Cubría por delitos de genocidio y lesa humanidad contra los responsables de la conculcación de los derechos humanos durante el Franquismo.*
6. ***El Ayuntamiento de Zizurkil anima a la ciudadanía a apoyar la Querella contra los crímenes del franquismo, bien personándose como querellantes quienes fueron directamente represaliados durante el régimen franquista o sean parientes de quienes lo fueron, o bien manifestando su denuncia de la Dictadura y su adhesión a la Querella contra sus crímenes y criminales.***

*Lo que declara el Plenario del Ayuntamiento de Zizurkil, a..... de............... de 2013.*

Jolin M García Garde
9 San Pedro Nº 2.2º
Pasai San Pedro
Pasaia

Animamos a los electos integrantes de esa institución a que se sumen a la Campaña contra los Crímenes del Franquismo aprobando dicha Moción.

**Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataforma**
***Plataforma Vasca para la Querella contra los Crímenes del Franquismo***

-**Altafaylla Kultur Taldea.** (www.altaffaylla.com)
-**CNT Euskal Herria.** (bilbao@cnt.es)
-**Durango 1936 Kultur Elkartea.**
-**Euskal Memoria Fundazioa.** (www.euskalmemoria.com)
-**Eusko Lurra Fundazioa.**
-**Egiari Zor Fundazioa.** (www.egiarizor.org)
-**Garraxika Taldea.** (www.turrune.wordpress.com)
-**Gernika Batzordea.** (www.gernika2012.net)
-**Goldatu Elkartea.** (www.goldatu.org) Oficina Virtual para la Querella
-**Intxorta 1937 Kultur Elkartea.** (www.intxorta.org)
-**Lau Haizetara Gogoan Elkartea.** (www.lau-haizetara-gogoan.blogspot.com)
-**Martxoak 3 Elkartea.** (www.martxoak3.org)
-**Oroituz Andoain 1936.**
-**Sanfermines 78:GOGOAN!** (sf78gogoan@gmail.com)
-**Sare Antifaxista.** (sare.antifaxista@gmail.com)